# Hau da aste honetako euskararen pilula!

## Siglak: puntuarekin ala punturik gabe?

Prisión permanente revisable = Espetxealdi iraunkor berrikusgarri

Siglak punturik gabe idatzi behar dira euskaraz, baita gaztelaniaz ere.

- **TXARTO**: N.A.N. / D.N.I., G.S.D.N. / T.G.S.S., ...
- **ONDO**: NAN / DNI, GSDN / TGSS, …

Gainera, euskaraz, siglak deklinatzerakoan ez da kontuan hartu behar nola idazten diren, nola irakurtzen diren baizik. Esate baterako:

- **TXARTO**: NANren, ZULUPko, BEZren, …
- **ONDO**: NANaren, ZULUPeko, BEZaren, GSDNren, …

**ADIBIDE BATZUK**

- GSDNren ofizioaren kopia = Copia del oficio de la TGSS
- Ikertuari eta kaltedunei buruz Eibarko 1 zk.ko ZULUPen egin diren aurreko deklarazioak = Las anteriores declaraciones de investigado y de perjudicadas de la UPAD nº 1 de Eibar
- Ustezko ezgaiaren NANaren fotokopia = Fotocopia del DNI del presunto incapaz

Gaia: TERMINOLOGIA
Iturria: EUSKALTERM